



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2014KO ABUZTUAREN 11KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2014.08.11.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Ander Almandoz Indacoechea jn.
Zinegotziak:
Koldobike Gorostiza Uriguen and.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Mikel Leiza Etxeberria jn.
Teodoro Pikabea Zubieta jn.
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.- Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza-DBH) ikastetxe publikoak hobetu eta birmoldatzeko diru laguntza deialdia.
- 3.-Candido Apecechea Lucambio jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 4.-Josefa Iparraguirre Almandoz andrea: oihan probetxamendu eskaerak.
- 5.-Gregorio Errandonea Alzuri jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 6.-Jose Manuel Oscoz Iturria: oihan probetxamendu eskaera.
- 7.-Fidel Mutuberria Picabea jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 8.-Kontseilua: diru laguntza eskaera.
- 9.-Larretako bidearen mugaketa.
- 10.- Felipebaita etxearen obrak.
- 11.- Obren hondakinen kudeaketa.
- 12.-Alkatearen ebazpenak.
- 13.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2014ko uztailaren 11n egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.- HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOKO ETA LEHEN HEZKUNTZAKO (LEHEN HEZKUNTZA-DBH) IKASTETXE PUBLIKOAK HOBETU ETA BIRMOLDATZEKO DIRU LAGUNTZA DEIALDIA.

Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emandako 435/2014 Ebazpena ikusirik, 2014ko uztailaren 14koa, Haur Hezkuntzaren 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza-DBH) Eskolak hobetzeko eta birmoldatzeko obra proiektuak egiteko laguntzak emateko deialdia onesten duena ikusirik.

Beharrezko diren lanen aurrekontua eta memoria ikusirik, Arantzako Eskola Kontseiluarekin egon ondoren eta honen aldeko txostena (kalefakzioko biltegiko teilatua moldatzeko).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Arantzako eskolan eta eskolarako beharrezkoak diren obrak onartzea.
- 2) Hezkuntza Departamentuari aipatutako aurrekontuan deskribatuta dauden obrak egiteko diru laguntza eskatzea.
- 3) Ebazpen hau Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea behar den gainerako dokumentazioarekin.

3.-CANDIDO APECECHEA LUCAMBIO JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Candido Apecechea Lucambio jaunak Ostazuri alderdian pinu insignisen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 1. poligonoko 210. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Candido Apecechea Lucambio jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.
- 2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea.
- 3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4.-JOSEFA IPARRAGUIRRE ALMANDOZ ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERAK.

Josefa Iparraguirre Almandoz andreak Urkullo eta Ontsen Borda alderdian akaziak eta pinuen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 5. poligonoko 26. eta 5. poligonoko 173. lur zatietan, hurrenez hurren).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Josefa Iparraguirre Almandoz andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerei aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.
- 2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea.
- 3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.



5.-GREGORIO ERRANDONEA ALZURI JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Gregorio Errandonea Alzuri jaunak Ariztxikieta eta Arbiagako erreka alderdian pinu insignisen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 5. poligonoko 346., 678., 913. eta 914. lur zatietan).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Gregorio Errandonea Alzuri jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

6.-JOSE MANUEL OSCOZ ITURRIA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Jose Manuel Oscoz Iturria jaunak Ibina alderdian pinu insignisen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 1. poligonoko 84. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Jose Manuel Oscoz Iturria jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

7.-FIDEL MUTUBERRIA PICABEA JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Fidel Mutuberria Picabea jaunak Egibeltza alderdian akazien probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 5. poligonoko 261. eta 262. lur zatietan).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Fidel Mutuberria Picabea jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

8.-KONTSEILUA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Gai hau mahai gainean uzten da.

9.-LARRETAKO BIDEAREN MUGAKETA.

Gai hau mahai gainean uzten da eskatutako txostena ez delakoz hartu.

10.- FELIPEBAITA ETXEAREN OBRAK.

Alkateak jakinarazi du 55/2014 ebazpenaren bidez ebatzi duela M.Isabel Taberna Vergara andreari, Esteban Agesta Larrechea jaunari eta Jose Luis Baquedano Altamira jaunari Felipebaita etxeko teilatua berritzeko eta altxatzeko hasitako obrak geldiarazteko agindua ematea; hirigintzako legezketasunaren babeserako espediente hastea; Felipebaita etxean baimenik gabe egindako obrak direla eta, etxearen jabeei 15 laneguneko epea ematea alegazioak egiteko, jakinarazpen hau hartu eta biharamunetik kontaktzen hasita. Epe horretan dokumentazio eta bertzelako iritziak aurkeztu ahalko dira.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

11.- OBREN HONDAKINEN KUDEAKETA.

Zinegotziek eskatu dute, obren hondakinen kudeaketa dela eta, gaia aztertzea eta nola bideratu ikustea.

12.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2014ko 47. ebazpenetik 55. arte).

13.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira izan.

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:

14.-UDALAREN ESKUMENEAN DAUDEN KIDE ANITZEKO ORGANOETARA JOAN BEHARREKO UDALAREN ORDEZKARIAK IZENDATZEA.

Kontuan izanik joan den hilabetean Jaime Iturria Mitxelena jaunak Alkatea eta zinegotzi kargua utzi duela eta bera zela Arantzako Udalaren ordezkaria Udalaren eskumenean dauden kide anitzeko organo batzuetan, aho batez, ERABAKI DUTE:

1:-Ander Almandoz Indacoechea jauna izendatzea Arantzako Udaleko ordezkaria Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatean, Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean eta-Bertizko Partzuergo Turistikoan.

Bertzerik gabe, gaueko 21:15ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Ander Almandoz Indacoechea jn.

